



DURANGO
Udala • Ayuntamiento



Elorrioko udala



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango







Osakidetza

BARRIALDE-GALDAKAO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA BARRIALDE-GALDAKAO



2021eko MEMORIA

**Durangaldean emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko
jarduera- eta koordinazio-lanetarako II. protokoloa**



AURKIBIDEA

2020KO HELBURUAK ETA EGINDAKO EKINTZAK	5
BARNE FUNTZIONAMENDUA 2020AN.....	4
PROTOKOLOAREN HARIRA 2021AN ARTATUTAKO EMAKUMEAK.....	22
SARRERA.....	3

1. SARRERA

Durungaldean emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduera- eta koordinazio-lanetarako II. protokoloak urte hauetan egin duen ibilbideari begiratuta, lehendik egina dagoen bidea hobetzeko ekintzak garatu eta neurriak hartu dira.

Memoria honen helburua urtean zehar landutako ekintzen eta helburuen berri ematea da; baita aurtengo ikasturtean lanerako izan dugun funtzionamenduaren berri ematea ere. Era berean, 2021ean antzemandako aurrerapenen eta erronken inguruko gogoeta egiteko gunea ere eskaintzen du. Bestalde, Koordinazio Orokorreko Mahaiaren barne-gogoeta gisa eta hurrengo urteko hobekuntza arloak eta erronkak identifikatzeko tresna gisa ere balio du, betiere, plangintza hobetuz.

2021erako helburuak urtearen hasieran ezarritako plangintzak zehaztu ditu oraindik latente dagoen pandemiaren testuinguruan. Planifikazioan aurreikusten zen egoera horrek pentsaraziko zuela Covid-19aren ondorioz arreta hobetzearekin lotutako ekintzak egin beharko zirela, eta 2020. urtean atzeratutako ekintza batzuei berriro heldu beharko litzaiekeela. Hala ere, gizarte- eta osasun-krisia baino lehenago finkatuta zeuden lerroetan lanean jarraitzearen aldeko apustua ere egin da, eginiko bideari jarraipena ematea eta behar berriei adi egotea uztartuz.

Aurten, baliabide gehienetan eragileak aldatu direlako eta gizarte osoaren egiteko moduak birbideratu dituen pandemia bat dela eta, beharrezkoa izan da helburuak egokitzea eta uneko lehentasunetara egokitzea, batez ere, urteko lehen hilabeteetan.

Gainera, lehentasuna eman zaion gaietako bat Durango eta Abadiñoko tokiko mahaiak sortzea izan da. Era berean, emakumeek baliabideak erabiltzen dituztenean igarotzen dituzten prozesuak hobeto ezagutzea, korapiloak identifikatzeko eta hobetzeko proposamenak ezartzeko

Aurreko urteetan bezala, Memoria hau Koordinazio Orokorreko Mahaiak egin eta Koordinazio Teknikoko Mahaiak aztertu du Koordinazio Politikoko Mahaiari aurkeztu ahal izateko.

Koordinazio Orokorreko Mahaia

2. BARNE FUNTZIONAMENDUA 2021AN

II. Protokoloak erakundeen arteko koordinaziorako zenbait maila ezartzen ditu. Maila horietan nagusia **erakundeen arteko koordinazioa** da, horretarako diseinatutako Koordinazio Mahaiei bidez egiten dena. 2021ean, 11 bilera egin dira mahai hauen inguruan:

 KOORDINAZIO OROKORREKO MAHAIA (KOM) Parte-hartzaileak: inplikaturako udaletako berdintasun-teknikariak eta idazkaritza teknikoa.	 KOORDINAZIO TEKNIKOKO MAHAIA (KTM) Parte-hartzaileak: indarkeria jasan duten emakumeak artatzeko zerbitzuetako teknikariak berdintasun-teknikariak eta idazkaritza teknikoa.	 KOORDINAZIO POLITIKOKO MAHAIA (KPM) Parte hartzaileak: udal desberdinetako politikariak, mankomunitateko presidentea, Ertzaintzaren eta Osakidetzaren arduradunak, berdintasun-teknikariak eta idazkaritza teknikoa.
Aldizkakotasuna: bi hilean behin (beharraren arabera). 2021eko martxoak 22 (online) 2021eko apirilak 27 (online) 2021eko uztailak 6 (Abadiño) 2021eko urriak 21 (Abadiño) 2021eko azaroak 12 (online) 2021eko abenduak 21 (aurrez aurrekoa)	Aldizkakotasuna: urtean lau aldiz (hiruhileko bakoitzean behin). 2021eko urtarrilak 22 (aurrez aurrekoa, Idazkaritza Teknikorik gabe) 2021eko apirilak 16 (Durango) 2021eko uztailak 9 (Durango) 2021eko urriak 29 (Durango)	Aldizkakotasuna: behin, urtearen hasieran. 2021eko otsailak 5 (online, Idazkaritza Teknikorik gabe)
Helburuak: Urte honetan zehar, mahai honek protokoloaren ekintza guztiak bultzatzera bideratu ditu helburu guztiak.	Helburuak: Arreta jaso duten emakumeen datuak partekatzea, hobetzeko guneak atzematea eta, aurren, zehazki, emakumeei laguntzeko baliabideek jarraitzen duten prozedura ezagutaraztea, baliabideen arteko koordinazioa hobetzeko, besteak beste, indarguneak eta alderdiak zein diren identifikatuz eta hobetuz.	Helburuak: Urte osoan zehar egindako lana ezagutzea eta mahai teknikoak hartutako erabakiak baliozkotzea.



**TOKIKO
KOORDINAZIOKO
MAHAIA (TKM)**

Gainera, **udal-koordinazioa** izateak duen garrantzia ere zehaztu da. Kasu honetan, udal bakoitzean Tokiko Koordinazio Mahai bat edukitzea proposatzen da. Orain arte Elorriok bakarrik zuen Tokiko Mahaia¹. Baina aurten ahalegin handia egin da Abadiñoko eta Durangoko tokiko mahaietan². Bi egiturak sortu dira eta lehen pausoak ematen hasi dira. Urtean zehar arreta jaso duten emakumeen kasu zehatzak konpontzeko saiakera egin da. Aurten, tokiko mahaiei esparruan egindako bilerak gauzatu dira:

Elorrio	Abadiño	Durango
2021eko urtarrilak 21 2021eko apirilak 15 2021eko ekainak 30 2021eko urriak 28	2021eko ekainak 09 2021eko urriak 21	2021eko urriak 29

3. HELBURUAK ETA 2021EAN GAUZATUTAKO EKINTZAK

Protokoloaren esparruko helburuak eta egindako ekintzak helburu finkatueta eta helburu espezifikoetan bana daitezke:

<i>Helburu eta ekintza FINKATUAK</i>	<i>Helburuak eta ekintza ESPEZIFIKOAK</i>
•Urtero aldizka egiten direnak dira, eta protokoloan, urtetik urtera, ohiko prozeduran ezarrita daude.	•Abian den ikasturterako diseinatzen dira, eta ez dago urtero jorratu beharrik.

2021erako helburuak urtearen hasieran (urtarrilean) ezarritako plangintzak zehazten ditu, baina hasierako helburu batzuk aldatu edo data desberdinetan egin dira, protokoloaren beharretara egokitzeko, eta, aldi berean, ekintza berriak sartu dira. Hona hemen urte hasieran finkatutako helburu orokorrak, dagozkien aldaketekin:

- Erakundeen arteko koordinazioa hobetzea.
- Arreta-baliabideetan arreta emandako emakumeei buruzko datuak partekatzea, erakundeen erantzuna hobetzeko.
- Mahai Teknikoan parte hartzen duten eragileen artean informazioa trukatzeko tresna bat izatea.
- Politikarientzako eta teknikarientzako prestatuntza zehatza antolatzea.
- KTMri, aldizka, indarkeria matxistari lotutako **informazio erabilgarria eta eguneratua** ematea.
- Urteko plangintza diseinatzea eta indarrean den urtean egindako lana ebaluatzea.
- Protokoloaren edukia zabaltzea.
- Protokoloan parte hartzen ez duten eragile garrantzitsuekin **harremanak indartzea**.
- Gaurkotasuneko gaiekin zerikusia duten mahaietan intereseko zenbait gogoeta sortzea.

² Berrizen kasuan, baliteke zentzurik ez izatea Tokiko Mahaia izateak.

- Indarkeria jasan duten emakumeekin lan egiten duten profesionalentzat erabilgarria izan daitekeen ingurune baliabideak ezagutzera ematea.

*Mahaien egiturari aipatu den moduan, erakunde arteko koordinazioa ere hobetzen da Durangoko tokiko mahaia, 2020ko plangintzan atzeratutakoa, aktibatuz. Urtean zehar, ekintza berri moduan, Abadiñoko tokiko mahaiaren aktibazioa ere txertatu da.

Hurrengo tauletan, **2021ean zehar egin diren helburuak eta ekintza zehatzak** erakusten dira, baita bakoitzean parte hartu duten eragileak, egindako ekintzetatik eratorritako produktua eta ekintza bakoitzean erantzuna eman nahi izan zion Protokoloko³ neurria ere. Gainera, ekintza bakoitza xehe-xehe azalduta dago.

³ Durangaldean emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduera- eta koordinazio-lanetarako II. protokoloak jasotzen duen jarraipenerako eta ebaluaziorako fitxa hatuko dugu kontuan, eta hala, protokoloan jasotako ekintzak zenbateraino betetzen diren ebaluatzeko.

AURTEN LANDU DIREN HELBURU ETA EKINTZA FINKATUAK				
HELBURUAK	EKINTZAK	ERAGILEAK	DOKUMENTAZIOA/ ERATORRITAKO PRODUKTUAK	Protokoloko zer neurri erantzuten dion
1. Erakundeen arteko koordinazioa hobetzea.	- KTM, TKM eta KOMen bilerei data jartzea eta bilerak egitea.	Berdintasuneko teknikariak. Idazkaritza Teknikoa.	Bileren egutegia eta aktak.	B2.1 Erakunde arteko koordinazioa hobetzea.
2. Arreta eskaintzeko baliabideetan artatu diren emakumeei buruzko datuak partekatzea, erakundeek ematen duten erantzuna hobetzeko.	- KTMko eragileen artean informazioa partekatzeko sortutako Excel tresna hiru hilean behin betetzea. - Lauhilekoko datuei eta koordinazio eta erantzunari lotutako hobekuntzei buruzko hausnarketa KTMn. - Artatutako emakumeei buruzko urteko datuen azterketa.	KTMko profesionalak. Berdintasuneko teknikariak. Idazkaritza Teknikoa.	Excel tresna. Urtean zehar artatutako emakumeei buruzko dokumentua.	B2.1 Erakunde arteko koordinazioa hobetzea.
3. Mahai Teknikoan inplikaturako eragileen artean partekatutako tresna bat izatea, informazioa errazago trukatu ahal izateko.	- Barne webgunea urtean zehar sortzen den dokumentazioarekin elikatzea. www.durangaldeprotokoloa.org	Berdintasuneko teknikariak. Idazkaritza Teknikoa.	Barneko webgunea.	B2.1 Erakunde arteko koordinazioa hobetzea.
4. Politikarientzako eta teknikarientzako prestakuntza espezifikoa antolatzea.	- KTMri eta interesa duten beste eragile batzuei zuzendutako prestakuntza. - Politikariei zuzendutako prestakuntza.	KTMko profesionalak. Interesa duten beste eragile batzuk. Politikariak. Berdintasuneko teknikariak. Idazkaritza Teknikoa.	Aurkezpenerako Power pointa.	I1.2. Politikarientzako eta teknikarientzako prestakuntza espezifikoa antolatzea.
5. KTMri, aldizka, indarkeria matxistari lotutako informazio erabilgarria eta eguneratua ematea.	- Hileroko bidaltzea indarkeria matxistari lotutako albiste eta ekitaldien buletina (11 buletin).	Berdintasuneko teknikariak. Idazkaritza Teknikoa.	Hileroko buletinak.	A1.2. Protokoloarekin lotutako baliabideak hedatzea.
6. Urteko plangintza diseinatzea eta abian den urtean eginiko lana ebaluatzea.	- Urteko memoria dokumentua egitea. - Plangintza dokumentua egitea.	Berdintasuneko teknikariak. Idazkaritza Teknikoa.	Urteko memoria. Urteko plangintza.	K1.1. Protokoloaren ezarpenari lotuta, urteroko jarraipenaren txosten bat egitea.
7. Protokoloaren edukia hedatzea.	- Protokoloaren triptikoa banatzea protokolotik kanpoko eragileekin egiten diren bileretan.	Berdintasuneko teknikariak. Idazkaritza Teknikoa.	-	A1.1. Protokoloaren edukia hedatzea.

Eginiko ekintzen xehetasunak:

Erakundeen arteko koordinazioa hobetzea. KTMen bilerei data jartzea eta bilerak egitea.

Gaur egun, Koordinazio Teknikoko Mahaiak lau bilera egiten ditu, hiruhileko bakoitzeko bat. Denetan **aztertzen dira dagokion hiruhilekoan artatutako emakumeei buruzko datuak, eta erakundeen arteko koordinazioari buruzko informazioa trukatzeko da**. Mahai tekniko osoan kasuekin zerikusia duten gaiei buruz gogoeta egiteko gunea dago.

Mahai teknikoaren barruko agente-aldaketak markatutako urtean (erretiroa, langile-aldaketa, ordezkapenak...), behin baino gehiagotan azpimarratu eta balioetsi dira protokoloaren funtzioa, helburu nagusiak, eskura dauden baliabideak eta horien garrantzia. Horrek balio izan du kide berriak kokatzeko eta ohikoei protokoloaren izaera gogorarazteko. Horrek pertsona berriekin bakarkako elkarrizketak izatea ekarri du, protokoloaren zentzua, funtzionamendua, mahaietan duen eginkizuna eta abar azaltzeko.

Gainera, erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko, aurten **mahaiko kide den osasun mentaleko ordezkari bat** sartu da, eta **Ginekologiako (Emagina)** osasun-arloko kide berriak sartu dira. Aipagarria da, halaber, zenbait ikasketa-adarretako (gizarte-lana, ikasketa politikoak...) praktiketan ari diren gazteak mahaitik pasatu izana; izan ere, horiek protokoloaren inguruko zabalkunde- eta ikaskuntza-lana egiten dute⁴.

Oraindik kontuan izan beharreko faktoreetako bat **pandemiak mahaiko baliabideetan izandako eragina** izan dela esan genezake, eta ondorioz, emakumeei eskainitako arretan izandakoa. Errealitate hori aurreko urtean hasi zen lantzen, baina unean-unean baliabide guztiak zeharkatzen jarraitzen du, batez ere 2021eko lehen hilabetei dagokienez: saio batzuk online egin dira eta parte-hartzea konplexuago bihurtu da Lan egin dugun zenbait baliabidek aldaketak ekarri dituzte erakundeetan, eta horrek mahai teknikoaren koordinazioan eta osaeran eragin du.

Aurtengo gai garrantzitsuenen artean, baliabideen **prozesuen mapa** azaltzearen hasiera nabarmentzen da. Bertan, pertsona horiek beren baliabidean biktima den emakume batek egiten duen ibilbidea aurkeztu dute. Helburu nagusia izan da, prozesuak sakon ezagutzeaz gain, topa daitezkeen indarguneak eta korapiloak identifikatzea, koordinazioa hobetzeko eta gorabeherak konpontzeko. Erakusketa horiek mahaiaren barruan egin dira erakusketa laburren bidez, idazkari teknikoaren laguntzarekin, eta, azkenik, kideen galderen bidez. Ereku bakoitzeko ibilbidea berrikusten jarraitzea da asmoa (gizarte-zerbitzuak, Osakidetza...). Saio bakoitzaren amaieran, baliabide bakoitzaren ibilbidea bidaltzen da akta batean bilduta, indarguneak eta hobetu beharreko alderdiak zein diren nabarmenduz. Dokumentu horrek, era berean, datorren urteko plangintzarako ere lagunduko du.

Orain arte bi ibilbide aurkeztu dira:

- *emakume baten ibilbidea JUSTIZIA arloan. (uztaila)*
- *emakume baten ibilbidea POLIZIA arloan. (urria)*

⁴ Saioetako akta guztiak barne webgunean daude eskuragarri: www.durangaldeprotokoloa.org

Era berean, puntu honekin lotuta, nabarmendu beharrekoa da apirilean Osasun Mentaleko Sarearen Berdintasun Batzordearen osasun mentalaren arlotik egindako aurkezpena. Osasun mentaleko hainbat adarretako 15-17 adituk osatzen dute sare hori, eta, gaur egun, gida bat egiten ari da buru-osasunaren esparruan genero-indarkeriaren kasuetan zer egin eta nola jokatu jakiteko. Horretarako, Osakidetzak argitaratu berri duen laburpen-gida (Genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko gida) egokitu dute. Mahai tekniko osoari bidali diote dokumentua eta protokoloaren webgunean dago eskuragarri.

Helburua beteta

Arreta eskaintzeko baliabideetan artatu diren emakumei buruzko datuak partekatzea KTMko eragileen artean informazio sortutako Excel tresna hiru hilean behin betetzea.

Lauhilekoko datuei eta koordinazio eta erantzunari lotutako hobekuntzei buruzko hausnarketa KTMn.

Emakumei buruzko urteko datuen azterketa.

KTMko kideek **Excel-tresna**⁵ bat partekatzen dute, eta hor identifikatzen dituzte baliabideetan arreta jaso duten emakumeak. Hasieran, Ertzaintzan betetzen dute Excela, eta ondoren, gainerako baliabideetakoek; jarraian, gizarte-zerbitzuek eta azkenik Osakidetzak (normalean kasu gehien jasotzen diren ordenaren arabera). Aurten **prozesua kide berriei azaldu** behar izan zaie, bereziki Osakidetzakoei (datorren urtean komeni da berriz ere ariketa hori egitea, urte amaieran pertsona berriak sartu baitira).

Mahai teknikoetan Excel tresnarekin eta bete beharreko datuekin lotuta hobekuntza-proposamenak eta zalantzak partekatu dira. Gainera, informazioa betetzen dutenek berriro irekitzearen datua jasotzearen garrantzia barneratzeko saiakera egin da, eta hala, ikus daiteke kasua berria den, edo berrireki egin den.

Aipatu beharreko gertakarien artean honako hauek nabarmen daitezke:

- Lehen hiruuhilekoan, datuak beste hiruuhileko batzuetakoak baino nabarmen baxuagoak direla ikus daiteke. Datu positiboa da, baina mahai teknikoak ados agertu dira eta adierazi dute Covidaren krisia dela eta aldagai ugari izan dezaketela eragina datu hori beste hiruuhilekoetan baino baxuagoa izan dadin.
- Bigarren hiruuhilekoan, datuak partekatzeko garaian korapiloa izan zen, ez ziren behar bezala bideratu eta beste baliabide batzuek ezin izan zuten tresna osatu, informazioa falta zutelako. Ertzaintzaren barruan bajak eta aldaketak izateagatik gertatu zela argitu dute.
- Hirugarren hiruuhilekoari dagozkion datuetan, datuak lagatzeari dagokionez biktimak emandako adostasun txikia nabarmentzen da. Oinarrizko arriskukotzat hartutako kasuek lagapenerako eragozpen handiagoak agertzen dituztelako izan zitekeela argitu dute, adibidez, beldurragatik edo ziurgabetasunagatik. Eta aldiz, arrisku handiko kasuetan, emakumeek ez dute zalantzarik izaten.

* *Hiruuhilekoetako Excelak barneko web-espazioan daude eskuragarri: www.durangaldeprotokoloa.org*



⁵Arreta jaso duten emakumeen inzialak biltzen ditu Excelak datuak lagatzen direnean, hala, jakin daiteke ea emakumeak protokolo baliabideetan arreta jaso duten.

Tresna hori gainerako baliabideetara iristen ez diren kasuak, gorabehera zehatzak, zailtasunak eta kasuen espezifikotasunak eta abar hautemateko abiapuntua da. Hortik abiatuta, erantzuna emateko eta hobetzeko ekintzak zehazteko saiakera egiten da.

Bildutako datuekin, urte amaieran, arreta jaso duten emakumeen datuei buruzko dokumentu bat prestatzen da (datuen azterketa estatistikoa) eta urteko memoriari erantsen zaio.

Helburua beteta

Tresna partekatua izatea . Barneko webgunea urtean zehar sortzen den dokumentazioarekin elikatzea. www.durangaldeprotokoloa.org



KTM osatzen duten kideentzako barne-erabilerarako web-espazio honek aukera ematen du prozesuan zehar sortzen diren **dokumentu** guztiak bertara iraultzeko: saioetako aktak, txostenak, jorratzen diren gaiei buruzko dokumentazio garrantzitsua eta abar.

Aurten ahalegin handia egin da gure jarduerari lotutako informazioa iraultzeaz gain, **erabiltzaile eta gako berriak** eguneratu eta sortzeko. Batetik, parte-hartzaile berrien profila sortu da eta webguneak zer funtzio duen azaldu zaie. Bestetik, errepasoa egin da dagoeneko protokoloaren parte aktibo ez diren kideak ezabatuz eta jarraitzen dutenekin gakoak errepasatuz. Izan ere, aurten eragile asko aldatu dira mahai teknikoan, eta tokiko bi mahai berri sortu dira. Mahai horiek beren web-orria dute udalerriko dokumentazioa protokoloari dagokionez gordetzeko. Akta eta eduki interesgarriak sortu ahala elikatu beharko da atal hau.

Halaber, eskura dagoen informazioa berrikusten da, baliabideak hainbat espaziotatik sortzen ziren gogoeten jakitun egon zitezen: dokumentuak, webinarra...

Hauek dira aurten webgunera igotako zenbait dokumenturen adibideak: bilera guztien aktak eta intereseko informazioa, esate baterako, gida Penal (genero-indarkeriaren biktimentzako zigor-prozesua).

* Material guztia barneko web-espazioan dago eskuragarri: www.durangaldeprotokoloa.org

Helburua beteta



Politikarientzako eta teknikarientzako prestakuntza zehatza antolatzea.

KTMri eta beste eragile batzuei zuzendutako prestakuntza + Politikariei zuzendutako prestakuntza.

- *KTMri (eta interesa duten beste eragile batzuei) zuzendutako prestakuntza:*

Mahai teknikoan adostu zen oraingo honetan landu beharreko gaia **protokoloaren baitan esku-hartzearen gidari diren printzipioak** izango zirela. Trebakuntza hori mahai bakoitzaren beharretara edo interesetara, uneko berrikuntzetara edo udalerrri sinatzaileen berdintasun arloek antzematen dituzten interes berezietara egokitu behar da. Bozketa bidez egin zen mahai teknikoetako batean.

Azaroan egindako aurrez aurreko saioan, lau orduko iraupenean, baliabideen 20 ordezkari bakoitzak gehiagok hartu dute parte. Helburu hauekin:

1. Printzipioekin trebatzea: Protokoloaren eta indarkeriaren aurkako emakumeekin egiten dugun esku-hartzearen azpian dauden printzipio edo elementu giltzarrien berri ematea eta horien inguruan sentsibilizatzea.


2. Printzipioak adostea: Printzipioak kontrastatzea eta abiapuntua partekatzen dugula bermatzea: printzipioak partekatzen ditugun, ulertzen ditugun, beste batzuk dauden edo soberan dauden, haien definizioa partekatzen den eta abar.
3. Printzipioak lurreratzea: Printzipioekiko koherentzia aztertzea, gure praktikak berrikusiz: gure jardueraren printzipioak nola gauzatzen ditugun ezagutzea, behar bezala zer egiten dugun eta hobetzeko aukera zerk duen baloratzea, kezkak partekatzea, praktika onak ezagutzea eta abar.



* Aurkezpenetarako erabilitako Power pointak barneko web-espazioan daude eskuragarri: www.durangaldeprotokoloa.org

Prestakuntza amaitzean, han zeuden eragileetako bakoitzari printzipioen lurreratzeari buruzko prestakuntza-/gogoeta-saioen ebaluazio-galdetegia bidali zaie. “Nola baloratzen duzu saioa bere osotasunean?” galderaren erantzunen batez besteko balioa 8 izan zen.

Hauek dira prestakuntzaren parte-hartzaileek baloratu zituzten beste gai batzuk:



Oro har, prestakuntzak harrera ona izan zuen zerbitzu guztien artean. Gaia interesgarria zen parte-hartzaileentzat, eta aurreikuspenak ondo bete ondoren, hobekuntza posibleen alderdi gisa aurkezten dira bai dinamizazioa, bai erabilitako metodologia. Guztiontzako prestakuntza aberasgarriak lortzeko etorkizunera begira kontuan izan beharreko alderdiak dira.

Helburua beteta



KPMri (eta interesa duten beste eragile batzuei) zuzendutako prestakuntza:

Aurten ez da berariazko prestakuntzarik egin lau udalerrri sinatzaileetako politikarientzat, protokoloa sinatu ez duten udalerrietako politikarientzat baizik. Protokoloa, horren balioa, funtzionamendua eta abar ezagutzera ematea izan da helburua.

Saioa mankomunitateak deitu zuen eta Durangon egin zen azaroaren 3an:

- Mankomunitatea: Eider Arostegi (Gizarte-zerbitzuen koordinatzailea) eta Mireia Elkoroibide (zuzendaria)
- Abadiñoko Udala: Mikel Garaizabal (alkatea)
- Iurretako Udala: Iñaki Totorikaguena (alkatea)
- Izurtzako Udala: Lorea Muñoz (alkatea)
- Mañariako Udala: Ainara Otxotorena (alkatea)
- Zaldibarko Udala: Jose Luis Maiztegi (alkatea) eta Izaskun Zurikarai (zinegotzia).

Mankomunitate berak eskatutako ekintza, funtsezkotzat jotzen dena hemen dagoen erakunde bakoitzaren lana eta erantzukizunak ezagutzeko eta hobekuntzak identifikatzen joateko. 2020rako zegoen aurrez ikusita, baina COVID-19aren pandemia-egoerarengatik atzeratu behar izan zuten; azkenean, aurten egin da arrakastaz.

Helburua beteta



KTMri informazio erabilgarria eta eguneratua aldiari behin eskaintzea

Hilero bidaltzea indarkeria matxistari lotutako albiste eta ekitaldien buletina (11 buletin).



Hilero bidaltzen zaie Koordinazio Teknikoko Mahaiko (KTM) kideei indarkeria matxistari lotutako intereseko **albisteak eta ekitaldiak** biltzen dituen **buletina**: gaiarekin lotutako albisteak, tokiko albisteak eta udalerriaz gaudiko albiste interesgarri batzuk; EAren esparruarekin lotutako jardunaldiak eta ekitaldiak; protokoloan parte hartzen duten udalerrietan gaiari buruz egiten diren ekitaldiak. Alderdi hori udal bakoitzeko berdintasun-teknikariek ematen duten informazioari esker sortzen da.

Tresnaren erabilgarritasunari buruz ere hausnartu dugu. Bereziki erabilgarria da berdintasun-teknikarientzat; izan ere, nahi duten guztiei birbidal diezaiekete buletina.

Helburua beteta



Urteko plangintza diseinatzea eta abian den urtean egindako lana ebaluatzea. *Urteko memoria*

+ *Plangintza dokumentua egitea*

Urte amaieran **urteko memoria** egiten da, eta hor biltzen dira urte osoan egindako ekintzak eta lortutako helburuak. Hurrengo urterako **plangintza** ere egiten da, esperientzia eta prozesuan hautemandako beharretan oinarrituta. *Ad hoc* plangintza izaten da, KTMrekin partekatzen da eta KPMn aurkezten da.

Helburua beteta



Protokolotik kanpoko eragileekin izandako bileretan **protokoloa hedatzea**.

Udalerrietako berdintasun teknikariek hartzen dute eginkizun hori.

AURTEN LANDU DIREN HELBURU ETA EKINTZA ESPEZIFIKOAK				
HELBURUAK	EKINTZAK	ERAGILEAK	DOKUMENTAZIO A/ ERATORRITAKO PRODUKTUAK	Protokoloko zer neurri erantzuten dion
1. Erakunde arteko koordinazioa hobetzea	Durangoko Tokiko Koordinazio Mahaia aktibatzea	Durangoko teknikaria. Idazkaritza Teknikoa.	Aktak	<i>B1.1 Koordinazioa hobetzea udal mailan.</i>
2. Erakunde arteko koordinazioa hobetzea BERRIA	Abadiñoko Tokiko Koordinazio Mahaia aktibatzea	Abadiñoko teknikaria Idazkaritza Teknikoa.	Aktak	<i>B1.1 Koordinazioa hobetzea udal mailan.</i>
3. Protokoloaren hedatzea. edukia	- Presentzia komunikabideetan. - 2019ko memoria eta 2020ko plangintza zenbait forotan aurkeztea. - Protokoloa Durangoko epaitegiko abokatuei aurkeztea.	Berdintasuneko teknikariak.	Albisteak, irratiko podcastak.	<i>A1.1. Protokoloaren edukia hedatzea.</i>
4. Protokoloan parte hartzen ez duten eragile garrantzitsuekin harremanak indartzea.	- Aldizkako informazioa jada harremana ezarria duten eragileei (bigarren mailako eragileak). - Protokoloari lotu gabeko eragileekin berriro harremanetan jartzea (hirugarren mailako eragileak), harreman estuagoa lortzeko asmotan (elkarteak, etab.). - Komunikabideekiko harremana finkatzea. - Durangoko Epaitegiko epaile berriarekin harremana hastea	Berdintasuneko teknikariak. Idazkaritza Teknikoa. Kanpoko langileak (bigarren eta hirugarren maila)	Aktak, mezu elektronikoak.	<i>B2.6 Bizkaiko Abokatuen Elkargoarekin erakundearen koordinazioa hobetzea.</i> <i>B2.7 Lanbiderekin erakundeko koordinazioa hobetzea.</i> <i>B2.8 Hezkuntzarekin erakundeko koordinazioa hobetzea.</i> <i>C1.2. Komunikabideak inplikatzeko</i> <i>B3.2. Gizarte zibileko erakundeekin lankidetzan aritzeko bideak ezartzea, indarkeria jasaten aritu</i>

				<i>daitezkeen edo ari diren emakumeekin prebentzio-eta haitemate-lanak egiteko eta haiei lagun egiteko.</i>
5. Mahaietan, gaurkotasunezko gaiekin, intereseko hausnarketa interesgarri batzuk sortzea	- Lehenik Koordinazio Orokorreko Mahaian, eta ondoren mahai teknikoan, indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeentzako arretarekin zerikusia duten egungo gai interesgarriak jorratzea.	Berdintasuneko teknikariak. Idazkaritza Teknikoa. KTM.		
6. Indarkeria jasan duten emakumeekin lan egiten duten profesionalentzako erabilgarriak izan daitezkeen inguruko baliabideak ezagutaraztea.	SFUS edo ZUREKIN laguntze-zerbitzua KTMri aurkeztea.	Berdintasuneko teknikariak. Idazkaritza Teknikoa. KTM.	Akta, power pointa.	<i>C1.1. Indarkeria matxistaren inguruko ezagutza sustatzea.</i>

Eginiko ekintzen xehetasunak:

Erakunde arteko koordinazioa hobetzea: Abadiñoko eta Durangoko tokiko mahaia sortzea

Bi udalerrietako berdintasun-teknikariekin bildu ostean eta tokiko mahaiak aktibatzeke une egokia zela ikusi ostean, bi mahaiak sortu dira (Durangokoa plangintzan zegoen eta Abadiñokoa txertatu berri den ekintza izan da).

Bakoitza bere testuinguruan, bi mahai horiek sortuz eta berriz aktibatuz, udalerriek, mahai teknikoak ez bezala, esku-hartze zuzena egiteko aukera dute. Mahai horiek arreta lantzeko aukera gehiago eskaintzen dituzte. Aldiz, mahai teknikoa koordinazioan oinarritzen da nagusiki. Mahai teknikoa eta tokikoa osagarriak dira. Tokiko testuinguruak ikuspegi mikroa, zehatza eskaintzen du eta arreta egokiagoa eskaintzeko bidea da.

Abadiñoko tokiko mahaia ekainean sortu zen, Durangokoa, berriz, urrian.

Gune honek konfiantza sortzen du, komunikazioa sendotzen du, hurbiltasuna eskaintzen du. Zailtasunak partekatzen dira, eta era berean, ideia berriak sortzeko aukera eskaintzen du. Hain zuzen ere, ideia horiek ezinbestekoak dira arreta hobetzeko. Larrialdi-unea gainditu denean (denbora pasatu ostean), kasu zehatzen gainean sakontzea ahalbidetzen du. Horri esker, beste ikuspegi batetik begiratuko dugu jarraitutako prozedura, eta lasaiago pentsatuko dugu nola lan egin dugun eta kasu zehatz horren inguruan nola koordinatu garen. Koordinatuta gaudela uste izan dezakegu, baina koordinazio hori puntuala da, larrialdiko egoera bati lotua, erantzun zehatzekoa. Baina ez du ahalbidetzen prozesamendua sendotzeko koordinazio sistematizatuagoa.

Esparru horrek, halaber, protokoloaren esparruan sartzen ez diren indarkeria mota berriei buruz hausnartzeko eta erantzuna hobetzeko aukera ematen du, eta indarkeria matxistaren aurrean erantzun integrala lortzeko lan egiten den gunea da.

Era berean, kasuaren jarraipena errazagoa da. Banaka jarduten dugunean, ohikoa izaten da arreta puntuala eman ondoren kasuari buruzko informazio gehiago ez izatea. Baina formatu horrekin errazagoa da kasuaren jarraipena egitea, emakumeak egin dituen urratsak ikustea, bere egoerari buruzko informazioa izatea, etab. Komeni da, halaber, egiten dugun lanak, beharrezkoa izateaz gain, zentzua duela ikustea. Informazioa partekatzen dugunean errepikatzen diren indarkeria-kasuen testuingurua (berririki biktimizatzea) ulertzeko aukera gehiago ere badago.

Mahai horiek Abadiñon eta Durangon sortzeak profesionalen beharrei erantzuteko aukera egokiagoa eskaintzen du. Beharrak ikusaraztea eta, batez ere, erabakiak hartzeko guneetara eramatea, berdintasunerako teknikaren bidez.

Helburua beteta



Erakunde arteko koordinazioa hobetzea Protokolotik kanpoko eragileekin harremanak sendotzea: aldiari behingo informazioa + eragile berrien identifikazioa + komunikabideekin harremana + Durangoko Epaitegiarekin izandako harremanak

Protokoloaren edukia zabaltzea: Komunikabideetan egotea + Foro desberdinetan memoria eta plangintza aurkeztea + Durangoko epaitegiko abokatuen protokoloa aurkeztea

2021ean, beharrezkotzat jo da Durangoko epaitegiko **epaile berriarekin** eta **indarkeriaren ofiziozko txandako abokatuarekin** harremana sendotzea.

Epaile berriarekiko harremana, Mankomunitateko abokatuak egokitzen jotzen duenerako aurreikusia, atzeratu egin behar izan da, egin aurretik beste aldaketa bat izan delako eta urritik epaile berri bat dagoelako. Ekintza 2022an jarriko da berriz martxan.

Indarkeriaren ofiziozko txandako abokatuaren kasuan, dagozkien kudeaketak egin dira. Azaroaren amaierarako zegoen saioa aurrez ikusita, baina mankomunitateko abokatuak gelditu du (berak egiten du deialdia). [Saioa abenduan edo urtarilaren amaieran egin ahal izatea espero da.](#)

Informazio-saioa izango da, eta protokolo berria zein den azalduko da (helburuak, funtzionamendua, inplikaturako eragileak...), eta bereziki, emakumeek eskura duten baliabideen mapa azalduko zaie.

Ezohiko izaerarekin, idazkaritza teknikoak **Durangoko Berdintasun Kontseiluan** izan zen eta berdintasuneko teknikariari lagundu zion protokoloa aurkezten. Saioan, gai interesgarriak sortu ziren elkarrekin eta inguruko mugimendu feministaren arteko harremanari buruz, kasuak bideratzeko asmoz.

Komunikabideekin harremanean, urte amaieran bilera bat egitea aurreikusten zen, aurreko urtean jarri ziren bitartekoekin. Deialdia bidali ondoren, topaketa bertan behera utzi zen, bertaratu ez zirelako.


Komunikabideetan ez da presentziarik izan. Horri buruzko gogoeta egin zen eta baloratu zen urte guztiek ez zutela berdina izan beharrik eta ez dela beharrezkoa beti protokoloan egiten dena edo egiten ez denaren berri ematea. Horretarako daude sarean igotzen diren memoriak.

Helburua erdi beteta (kudeaketak beteta) 

Gaurkotasuneko gaiekin zerikusia duten mahaietan intereseko zenbait gogoeta sortzen dituzte.

Prozesuen mapari esker sortu da hori: emakumearen ibilbidea arlo POLIZIALEAN eta JUZIALEAN. Gune honetan, protokolo barneko koordinazioaren hobekuntza landu da barnetik, batez ere emakumeei arreta eskaintzea sendotze aldera. Ibilbidea mahaiazi azaltzeko orduan, zalantzak, gogoetak eta protokoloa aberasten duten hobekuntza-proposamenak partekatu dira. Mahai bakoitzerako koordinaziorako edo berariazko prestakuntzarako topaguneetatik harago, bidezkoa da indarkeria matxistaren arloko berrikuntzei buruzko informazioa izatea. Idazkaritza teknikoak aldizka eman du informazioa protokoloari, arau-berrikuntzei, terminologikoei edo testuinguru-aldaketei buruzko jardunaldi interesgarriei buruz.

Ondorioak hurrengo mahai teknikoan aurkeztu zituzten, eta osasunaren eta gizarte-zerbitzuen arloa landuko den azken topaketa egitea aurrez ikusten da. Parte-hartzaileek proposatu zuten, halaber, emakume batek polizia-esparruan egiten duen ibilbideari buruz gogoeta egiteko espazioa handitzea, saioan galdetzeke eta egiaztatzeke geratu baitziren.



Polizia arloko eta arlo judizialeko ibilbidea bistartzeko saioan egindako eskema

Helburua beteta

Inguruko baliabideak ezagutaraztea: Babes Sozialeko Agenteen Sarea Bizkaiko Lurralde Historikoan

Mahaien parte diren eragileen gaikuntza areagotzea, ez soilik politikarientzako eta teknikarientzako berariazko prestakuntza-ekintzengatik, haiek gaitzeko funtsezko ekintza baita, baita profesionalentzat interesgarriak diren inguruko baliabideak ezagutarazteagatik ere.

Baliabideak ezagutzeari dagokionez, mahai teknikoan Tartekari Sarea Programaren aurkezpena egin zen: Babes Sozialeko Agenteen Sarea da Bizkaiko Lurralde Historikoan.

Tartekari Sarea programaren helburua emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiten laguntzea da; helburu nagusia da Bizkaiko elkarteren bateko (sareko agenteak) emakume boluntarioen sare bati laguntza ematea eta lagun egitea, betiere, genero-indarkeriaren egoeran dauden emakumeak atzemateko (printzipioz, ez dute beste indarkeria batzuekin jarduten), baliabide

espezifikotara bideratzeko. Bizkaiko Foru Aldundiko Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua da. Foru Aldundia da programaren arduraduna. Suspergintza Elkaratek eskaintzen du ekintza horretako garapenari laguntzeko talde profesionala. Programaren helburua emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea eta berdintasuna sustatzea denez, banakako eta taldeko ahalduntzearen eta komunitate-lanaren bidez, egokia ikusi zen baliabide hori eragileei aurkeztea, Durangaldean aktibo baitago.

Tartekari Sarea Durangaldea - Asociaciones: Andereak, Nahikari

Difusión

Página web
<http://andereak.blogspot.com.es/>

Díptico y cartel

Marcapáginas

Presentaciones:
 Presentación en Pinondo, presentación abierta a la ciudadanía, asociaciones del entorno, Servicios sociales de Base

Boca a boca: Técnicas de igualdad, ciudadanía

Repertir el material en actividades de la asociación, buzono

La Agente de Apoyo Social en la labor de puente



Helburua beteta



BERRIA 2020an arreta emandako emakumeen datuen hainbat azterketa egin dira eta aurreko urteekin alderaketa egin da ekintza horri erantzuna emateko.

Aurtengo urteari begira, ahalegin handia egin dugu barne-tresnen sorreran:

Batetik, *Protokoloaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresna*. Protokoloaren jarraipena egiteko adierazleak dituen dokumentua da (bilerak, dokumentu partekatuak, prestakuntza...), jardura eta ekintzak ebaluatzeko (beste ekintza kualitatibo batzuk ere egingo dira) helburuarekin. Adierazleen multzo bat da, eta, begiratu batean, jarraipen- eta ebaluazio-gaiei buruzko informazioa emango du.

Aztertutako kasuen datu kuantitatiboei eta horien azterketa-aldagaiei (indarkeria mota, adina, etab.) dagokienez, erraz erabiltzeko informazioa izan ahal izateko, azken urteko (2020) datuetatik abiatuta, oinarritzko adierazle-sistema bat sortzen da. Sistema horretan adierazle garrantzitsuenak jasoko dira (ez urteko datuen txostenean aztertzen diren guztiak), eta prest dago adierazle bakoitzaren bilakaerari buruzko datuak erraz ikusteko: arreta emandako kasuen kopurua, bikoteak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria-kasuen %, berrirekitze-kasuen %, etab. Erabilgarria izan daiteke kasu horiei buruzko datuak eskura izateko, komunikabideei informazioa emateko, aztertutako datu bakoitzaren bilakaera azkar ezagutzeko, eta abar.

Bestalde, *Adierazle orokorren tresna*: Aurreko urteetako datu adierazgarrienak biltzen diren Excel dokumentua, bai protokoloaren baitan, bai maila autonomikoan. Datu guztiak dokumentu bakar eta praktikoa batean bistaratzeko tresna erabilgarria, erakunde, antolakunde edo komunikabide batek datuak eskatzen dituenetarako.

4. PROTOKOLOAREN HARIRA 2021EAN ARTATUTAKO EMAKUMEAK

Hurrengo atalean aurkeztuko ditugu indarkeriaren biktima izan, eta 2021an Protokoloari atxikitako udalerrietako (Abadiño, Berriz, Durango, Elorrio) baliabideetan artatu dituzten emakumeen kopuruari buruzko datuak.

Datuak zenbait aldagairen arabera eskainiko ditugu; adibidez, emakumeek jasandako indarkeria mota, adina, jatorria eta babes-neurriak izatea edo ez. Kasu bakoitzean, gainera, dagokien udalerriaren arabera ere bereizi ditugu datuak.

2021an jasotako datuei begira, guztira, 63 emakumek jaso dute arreta udalerri horietan indarkeria jasateagatik, 2020an erregistratutakoak baino emakume bat gehiago (62 emakume). Kasuen %69,84 (44 kasu) Durangon erregistratu ziren, %17,46 Abadiñon, %7,94 Berrizen eta %4,76 Elorrian.

Udalerria	Abs.	%
ABADIÑO	11	17,46%
BERRIZ	5	7,94%
DURANGO	44	69,84%
ELORRIO	3	4,76%
Total	63	100,00%

Hiruhilekoen arabera, laugarren hiruhilekoan izan ziren erregistro gehien (21 emakume).

T1	T2	T3	T4
14	14	14	21
GUZTIRA 63			

2021AN ARRETA JASOTAKO EMAKUMEAK UDALERRIKA ETA HIRUHILEKOKA

ABADIÑO				BERRIZ				DURANGO				ELORRIO			
1. HH	2. HH	3. HH	4. HH	1. HH	2. HH	3. HH	4. HH	1. HH	2. HH	3. HH	4. HH	1. HH	2. HH	3. HH	4. HH
3	1	1	6	3	1	1	0	8	11	10	15	0	1	2	0
GUZTIRA 11				GUZTIRA 5				GUZTIRA 44				GUZTIRA 3			

Indarkeria-motari dagokionez, eraso gehienak (%87,50) genero-indarkeria definizioaren barruan tipifikatu ziren. Horrez gain, artatutako kasuen % 7,14 indarkeria sexistaren bezala sailkatu dira, eta hiru kasu (% 5,36) sexu-eraso gisa erregistratu dira 2021. urtean.

2021AN ARRETA JASOTAKO EMAKUMEAK, INDARKERIA MOTAREN ARABERA ETA UDALERRIKA. ABSOLUTUAK ETA %.

		INDARKERIA SEXISTA ⁶	GENERO- INDARKERIA ⁷	SEXU- ERASOA ⁸	GUZTIRA
ABADIÑO	Abs.	1	8	0	9
	%	11%	89%	0%	100%
BERRIZ	Abs.	0	5	0	5
	%	0%	100%	0%	100%
DURANGO	Abs.	3	33	3	39
	%	7,7%	84,6%	7,7%	100%

⁶ Indarkeria sexista: genero femeninokoa izatea oinarri duen indarkeria-egintza oro, emakumeei kalte edo sufrimendu fisiko, sexual edo psikologikoa eragitea ekar dezakeena, bai eta egintza horien mehatxuak, bortxak edo askatasuna bidegabe kentzea, bizitza publikoan nahiz bizitza pribatuan gertatzen bada ere. Hor sartzen da genero-indarkeriaren edo sexu-erasoen baitan jasota ez dagoen edozein indarkeria.

⁷ Genero-indarkeria: indarkeria fisiko eta psikologikoko egintza oro, besteak beste, sexu-askatasunari eginiko erasoak, mehatxuak, hertsatzeak edo askatasuna modu arbitrarioan kentzea, diskriminazio-adierazpenen, berdintasun-faltaren egoeren eta gizonen emakumeen gainean dituzten botere-harremanen kasuan bezala, ezkontide dituztenen edo izan dituztenen, edo afektibitate-harremanen bidez lotura dutenen aurka, baita elkarrekin bizi gabe ere, egiten dena.

⁸ Sexu-erasoak: Beste pertsona baten sexu-askatasunari indarkeria edo larderia erabilia eraso egiten dion jokabide oro. Bortxaketa izango da sexu-erasoa baginatik, uzkitik edo ahotik haragitzen bada, edo lehenengo bi bide horietako batetik gorputz-adarrak nahiz gauzak sartzen direnean.

	%	8%	85%	8%	100%
ELORRIO	Abs.	0	3	0	3
	%	0%	100%	0%	100%
GUZTIRA	Abs.	4	49	3	56
	%	7,14%	87,50%	5,36%	100,00%

Oharra: zazpi kasutan (bi Abadiñon eta bost Durangon) ez da jaso erasotzailearekiko harremanari buruzko informaziorik.

Erasotzailearekiko harremanari dagokionez, erasotzailea bikotekidea edo bikotekide ohia izan da kasuen %80,65ean (%88,3an 2020an), eta senide bat kasuen %19,35ean. Ehuneko horrek nabarmen egiten du gora 2020ko datuekin alderatuta (%10 izan zen 2020an).

EMAKUMEEN BANAKETA ERASOTZAILEREKIKO HARREMANAREN ARABERA. ABSOLUTUAK ETA %

		EZEZAGUNA	SENIDEA	BIKOTEKIDEA/BIKOTEKIDE OHIA	GUZTIRA
ABADIÑO	Abs.	0	3	8	11
	%	0%	27,27%	72,73%	100%
BERRIZ	Abs.	0	0	5	5
	%	0%	0%	100,00%	100%
DURANGO	Abs.	0	9	33	42
	%	0,00%	21,43%	78,57%	100%
ELORRIO	Abs.	0	0	3	3
	%	0%	0%	100%	100%
GUZTIRA	Abs.	0	12	50	62
	%	0,00%	19,35%	80,65%	100,00%

Oharra: erasotzailearekiko harremanari buruzko informaziorik ez da jaso kasu batean (Durangon).

Adinaren arabera aztertuz gero, artatutako emakume gehienek (%30,51) 31 eta 40 urte bitartean dituzte; ondoren datoz 41-50 urte bitartekoak (%23,73) eta 21-30 urte bitartekoak (%15,25). Ikus dezakegu artatutako emakumeen erdiak baino gehiagok 31 eta 50 urte bitartean dituztela (%54,24 guztira); 30 urtetik beherakoak, berriz, artatutako emakume guztien %32,20 dira. Horietatik % 13,56 16 urtetik beherakoak dira (adin tarte hau kasuen % 3,4 izan ziren 2020an). Adineko emakumeei dagokionez, 50 urtetik gorakoak, guztiaren %13,56 dira.

2021AN ARRETA JASOTAKO EMAKUMEAK ADINAREN ARABERA ETA UDALERRIKA ABSOLUTUAK ETA %.

		< 16 urte	16-20 urte	21-30 urte	31-40 urte	41-50 urte	51-64 urte	>65 urte	Guztira
ABADIÑO	Abs.	3	0	1	5	1	1	0	11
	%	27%	0%	9%	45%	9%	9%	0%	100%
BERRIZ	Abs.	0	1	0	1	1	0	9%	3
	%	0%	33%	0%	33%	33%	0%	0%	100%
DURANGO	Abs.	5	1	8	12	10	3	3	42
	%	12%	2%	19%	29%	24%	7%	7%	100%
ELORRIO	Abs.	0	0	0	0	2	1	0	3
	%	0%	0%	0%	0%	67%	33%	0%	100%
GUZTIRA	Abs.	8	2	9	18	14	5	3	59
	%	13,56%	3,39%	15,25%	30,51%	23,73%	8,47%	5,08%	100%

Oharra: ez da adinari buruzko informaziorik jaso lau kasutan (bi Berrizen eta bi Durangon).

Erasotzaileen adinari dagokionez, gehienek 31-40 urte dituzte (% 43,86), eta ondoren, 41-50 urte bitartekoak taldea izango litzateke kopuru handienekoa (% 31,5). Horrek esan nahi du erasotzaileen % 75,44k 31-50 urte bitartean dituztela. Nabarmenezkoa da, halaber, 30 urtetik beherako erasotzaileen ehunekoa (%17,54). Horietatik %10,5ek 20 urte baino gutxiago baitituzte.

ERASOTZAILEAK ADINAREN ETA UDALERRIAREN ARABERA 2021AN. ABSOLUTUAK ETA %.

		< 16 urte	16-20 urte	21-30 urte	31-40 urte	41-50 urte	51-64 urte	>65 urte	Guztira
ABADIÑO	Abs.	0	0	0	7	4	0	0	11
	%	0%	0%	0%	64%	36%	0%	0%	100%
BERRIZ	Abs.	0	1	1	0	1	0	0	3
	%	0%	33%	33%	0%	33%	0%	0%	100%
DURANGO	Abs.	0	5	3	17	12	3	0	40
	%	0%	13%	8%	43%	30%	8%	0%	100%
ELORRIO	Abs.	0	0	0	1	1	1	0	3
	%	0%	0%	0%	33%	33%	33%	0%	100%
GUZTIRA	Abs.	0	6	4	25	18	4	0	57
	%	0,00%	10,53%	7,02%	43,86%	31,58%	7,02%	0,00%	100,00%

Oharra: ez da adinari buruzko informaziorik jaso sei kasutan (bi Berrizen eta lau Durangon).

Artatutako emakumeen jatorriaren arabera, %21,67 (%16,4 2020an) protokolora atxikitako udalerriren batekoa da (Abadiño, Berriz, Durango edo Elorrio) eta %26,67a probintzia mailakoa. Arreta jaso duten emakumetatik, EAetik kanpo jatorria duten emakumeak % 50 dira, gehienak EBtik kanpoko herrialdeetatik etorritakoak dira, % 36,67.

BIKTIMA DIREN EMAKUMEAK EMAKUMEEN JATORRIAREN ETA UDALERRIAREN ARABERA. ABSOLUTUAK ETA %.

		Udalerrria	Probintzia	Autonomia- erkidegoa	Herrialdea	EB	EBz kanpo	Guztira
ABADIÑO	Abs.	1	7	0	0	1	2	11
	%	9,09%	63,64%	0,00%	0,00%	9,09%	18,18%	100,00%
BERRIZ	Abs.	0	0	0	1	0	2	3
	%	0,00%	0,00%	0,00%	33,33%	0,00%	66,67%	100,00%
DURANGO	Abs.	12	8	1	2	2	18	43
	%	27,91%	18,60%	2,33%	4,65%	4,65%	41,86%	100,00%
ELORRIO	Abs.	0	1	0	2	0	0	3
	%	0,00%	33,33%	0,00%	66,67%	0,00%	0,00%	100,00%
GUZTIRA	Abs.	13	16	1	5	3	22	60
	%	21,67%	26,67%	1,67%	8,33%	5,00%	36,67%	100,00%

Oharra: ez da jaso jatorriari buruzko informaziorik hiru kasutan (bi Berrizen eta bat Durangon).

Erasotzaileen kasuan, % 16,67 (% 12,1 2020an) protokoloa sinatu duten udalerrietako batetik datoz, eta % 21,67 (% 19a 2020an) probintziako beste udalerrri batzuetatik. Hala, EAEkoak direnek guztiaren % 43,33 osatzen dute. Erasotzaileen % 50 EAEtik kanpokoak dira, gehienak EBtik kanpoko herrialdeetakoak.

ERASOTZAILEAK JATORRIAREN ETA UDALERRIAREN ARABERA ABSOLUTUAK ETA %.

		Udalerrria	Probintzia	Autonomia- erkidegoa	Herrialdea	EB	EBz kanpo	Guztira
ABADIÑO	Abs.	3	2	0	2	0	4	11
	%	27,27%	18,18%	0,00%	18,18%	0,00%	36,36%	100,00%
BERRIZ	Abs.	0	0	1	0	0	2	3
	%	0,00%	0,00%	0,00%	33,33%	0,00%	66,67%	100,00%
DURANGO	Abs.	7	8	2	1	3	21	43
	%	16,28%	18,60%	4,65%	2,33%	6,98%	48,84%	100,00%
ELORRIO	Abs.	0	3	0	0	0	0	3
	%	0,00%	100,00%	0,00%	0,00%	0,00%	0,00%	100,00%
GUZTIRA	Abs.	10	13	3	3	3	27	60

	%	16,67%	21,67%	5,00%	5,00%	5,00%	45,00%	100,00%
--	---	--------	--------	-------	-------	-------	--------	---------

Oharra: ez da informaziorik jaso hiru kasutan (bi Berrizen eta bat Durangon).

Babes-neurri posibleei dagokienez, esan behar da emakumeen % 41,38k uko egin ziotela babes-neurri horiei. Gainera, % 10,34k babes-neurri horiek eskatu zituen, baina ez lortu. Zifra hau aurreko urtean baino ehuneko nabarmen baxuagoa (2020an % 34,5) izanik. Azkenik, % 48,28k eskatu eta lortu zituen (% 20,7 2020an).


EMAUMEEN BANAKETA BABESEKO NEURRIAK IZATEAREN ARABERA ABSOLUTUAK ETA %

		Uko egin zien babes- neurriei	Eskatu zituen, baina ez lortu	Eskatu eta lortu zituen	Babes- neurriak epaian	Guztira
ABADIÑO	Abs.	5	2	4	0	11
	%	45,45%	18,18%	36,36%	0,00%	100,00%
BERRIZ	Abs.	0	0	5	0	5
	%	0,00%	0%	100%	0%	100%
DURANGO	Abs.	18	4	17	0	39
	%	46,15%	10,26%	43,59%	0,00%	100,00%
ELORRIO	Abs.	1	0	2	0	3
	%	33,33%	0,00%	66,67%	0,00%	100%
GUZTIRA	Abs.	24	6	28	0	58
	%	41,38%	10,34%	48,28%	0,00%	100,00%

Oharra: babes-neurriei buruzko informaziorik ez da jaso lau kasutan (Durangon). Bestela, ez zegozkion neurriak.

2016 eta 2021 artean arreta emandako emakumeen datuen bilakaera

Erakunde horiek artatutako emakume kopuruaren bilakaerari dagokionez, nabarmentzekoa da 2020an izandako beherakadak bere horretan jarraitzen duela, azken urteotako goranzko joera hautsiz. COVID19 aren pandemiaren ondorioz, hain ezohikoa izan den urteen isla argia da. Oro har, tokiko mahaiek, teknikoek zein orokorrek, hausnartu dute indarkeria ez dela murriztu, baizik eta egoerak indarkeria ezkutatu egin duela.



Datuek erakusten dute 2021an artatutako emakumeen kopuruak 2020ko joera berdina jarraitzen dutela, COVID 19 pandemia aurreko urteetan goranzko joera izan ondoren.

ARRETA EMANDAKO EMAKUMEEN KOPURUAREN BILAKAERA UDALERRIEN ARABERA ABSOLUTUAK. 2016-2021

	2016	2017	2018	2019	2020	2021
ABADIÑO	10	8	10	12	9	11
BERRIZ	4	9	13	8	9	5
DURANGO	41	53	51	65	37	44
ELORRIO	7	6	9	12	7	3
Guztira	62	76	83	97	62	63

ARRETA EMANDAKO EMAKUMEEN KOPURUAREN BILAKAERA
UDALERRIEN ARABERA ABSOLUTUAK. 2016-2021

	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Indarkeria sexista	7	17	6	30	9	4
Genero-indarkeria	49	51	71	61	53	49
Sexu-erasoa	7	6	5	1	0	3
GUZTIRA	63	74	82	92	62	59

Datuek erakusten dute, batez ere, indarkeria sexistak behera egin duela, baita genero-indarkeriak ere, nahiz eta artatu diren emakume gehienak indarkeria-mota horretan biltzen diren. 2020an ez zen emakumerik artatu sexu-erasoagatik; 2021ean, ordea, 3 kasu artatu dira.

Oharra: ez dira sartzen informazioa ezagutzen ez den kasuak

Azken urtean, nabarmentzekoa da 31-50 urteko adin-tartean artatutako emakumeen kopuruak gora egin duela, eta, era berean, 2021an 16 urteko edo hortik beherako emakume gazteen kopuruak gora.

ARRETA EMANDAKO EMAKUMEAK, ADINAREN ARABERA 2016-2020. ABSOLUTUAK ETA %.

		< 16 urte	16-20 urte	21-30 urte	31-40 urte	41-50 urte	51-64 urte	>65 urte	Guztira
2021	Abs.	8	2	9	18	14	5	3	59
	%	13,56%	3,39%	15,25%	30,51%	23,73%	8,47%	5,08%	10000,00%
2020	Abs.	2	4	12	18	13	10	0	59
	%	3,40%	6,80%	20,40%	30,50%	22%	16,90%	0%	100
2019	Abs.	5	12	20	26	20	8	4	95
	%	5,26	12,63	21,05	27,37	21,05	8,42	4,21	100
2018	Abs.	4	9	23	24	15	8	0	83
	%	4,8	10,8	27,7	28,9	18,1	9,6	0	100
2017	Abs.	8	6	15	22	15	4	4	74
	%	10,8	8,1	20,3	29,7	20,3	5,4	5,4	100
2016	Abs.	4	5	17	15	16	5	1	63
	%	6,3	7,9	27	23,8	25,4	7,9	1,6	100

Oharra: ez dira sartzen informazioa ezagutzen ez den kasuak

Erasotzaileen kasuan, 2020. urtearekin konparatuz gorakada egon da 31 eta 40 urte bitarteko erasotzaileen artean, eta jaitsiera 30 urtetik beherakoen artean.

GIZONEZKO ERASOTZAILEAK ADINAREN ARABERA 2016-2021. ABSOLUTUAK ETA %.

		< 16 urte	16-20 urte	21-30 urte	31-40 urte	41-50 urte	51-64 urte	>65 urte	Guztira
2021	Abs.	0	6	4	25	18	4	0	57
	%	0,00%	10,53%	7,02%	43,86%	31,58%	7,02%	0,00%	100,00%

2020	Abs.	0	6	10	14	21	5	0	56
	%	0%	10,70%	17,90%	25%	37,50%	8,90%	0%	100%
2019	Abs.	3	10	13	30	19	8	3	86
	%	3,49	11,63	15,12	34,88	22,09	9,3	3,49	100
2018	Abs.	1	9	19	25	23	2	0	79
	%	1,3	11,4	24,1	31,6	29,1	2,5	0	100
2017	Abs.	1	7	12	28	15	6	2	71
	%	1,4	9,9	16,9	39,4	21,1	8,5	2,8	100
2016	Abs.	2	3	15	15	18	6	1	60
	%	3,3	5	25	25	30	10	1,7	100

Oharra: ez dira sartzen informazioa ezagutzen ez den kasuak

Jatorriari dagokionez, nabarmentzekoa da protokoloa sinatu duten udalerrietatik datozen emakumeen kopuruak gora egin duela 2020. urtearekin alderatuta, hiru kasu gehiago zenbatu baitira. EBtik kanpoko herrialdeetatik etorritako emakume gehienak dira oraindik ere.

EMAKUMEAK HAIEN JATORRIAREN ARABERA. 2016-2021. ABSOLUTUAK ETA %.

		Udalerria	Probintzia	Autonomia- erkidegoa	Herrialdea	EB	EBz kanpo	Guztira
2021	Abs.	13	16	1	5	3	22	60
	%	21,67	26,67	1,67	8,33	5,00	36,67	100,
2020	Abs.	10	14	1	5	2	29	61
	%	16,40	23	1,60	8,20	3,3%	47,50	100
2019	Abs.	27	18	5	5	8	33	96
	%	28,13	18,75	5,21	5,21	8,33	34,38	100
2018	Abs.	21	19	0	5	4	34	83
	%	25,3	22,9	0	6	4,8	41	100
2017	Abs.	28	12	3	1	7	24	75
	%	37,3	16	4	1,3	9,3	32	100
2016	Abs.	31	7	1	4	7	13	63
	%	49,2	11,1	1,6	6,3	11,1	20,6	100

Oharra: ez dira sartzen informazioa ezagutzen ez den kasuak

Gizonen kasuan, gorakada ikusten da udalerrietako eta probintziako gizonen kasuan, EAEko erasotzaileen kopurua guztiaren % 43,33koa da.

GIZONEZKOAK HAIEN JATORRIAREN ARABERA 2016-2020. ABSOLUTUAK ETA %.

		Udalerria	Probintzia	Autonomia- erkidegoa	Herrialdea	EB	EBz kanpo	Guztira
2021	Abs.	10	13	3	3	3	27	59
	%	16,67%	21,67%	5,00%	5,00%	5,00%	45,00%	100,00%
2020	Abs.	7	11	4	6	5	25	58
	%	12,10%	19%	6,90%	10,30%	8,60%	43,10%	100%
2019	Abs.	17	21	1	8	8	31	86
	%	19,77	24,42	1,16	9,3	9,3	36,05	100
2018	Abs.	11	32	2	5	4	24	78
	%	14,1	41	2,6	6,4	5,1	30,8	100
2017	Abs.	19	11	9	3	4	26	72
	%	26,4	15,3	12,5	4,2	5,6	36,1	100
2016	Abs.	15	17	7	4	3	13	59
	%	25,4	28,8	11,9	6,8	5,1	22	100

Oharra: ez dira sartzen informazioa ezagutzen ez den kasuak

5. AURRERAPENAK, LORPENAK, ZAILTASUNAK ETA 2021EAN IDENTIFIKATUTAKO ERRONKAK

Aurrerapenak eta lorpenak	- Koordinazio Teknikorako Mahaiak, baliabideen ordezkariak dagokienez aldaketa batzuk izan arren, errutinarekin jarraitu du, eta indartsu dago urteko koordinazio-guneetan, pandemiak eragindako zailtasunak eta lan-kargak gorabehera. Osakidetzak normaltasunez jarraitu du jardunean. - Koordinazio Teknikorako Mahaian osasun mentalaren presentzia sendotu da eta Osasun Mentaleko Sareko genero-indarkeriaren Batzordearekin harremana sortu da. - Emakume baten ibilbideari buruzko gogoeta egin da eta hori partekatu da baliabide desberdinetan. - Hiru tresna berri sortu dira protokoloak ondo funtziona dezan. - Honako gai hauek sendotu dira: - memoriaren eta plangintzaren txostenak. - Durangoko eta Abadiñoko tokiko mahaiak sortzea eta berriz aktibatzea. - mahai teknikoarentzako intereseak izan daitezkeen baliabideak identifikatzea eta aurkeztea. - Indarkeria matxistari buruzko iruditeria eta hizkuntza komun baterantz egin da aurrera. - Barneko lanean hobekuntza nabari da eta horri esker mahai teknikoak arinagoak dira.
Zailtasunak	- Pandemia oraindik nabari da batez ere urtearen lehen hilabeteetan; izan ere, saio batzuen garapena zaildu du eta online egin behar izan dira. - Mahai Teknikoa osatzen duten langileetan hainbat aldaketa izan dira. - Deialdia egin arren eta saioa prestatu arren, komunikabideekin harremanetan jartzeko zailtasunak. - Barneko webgunea maizago erabiltzeko eta elikatzeko ohitura geureganatzen jarraitu beharra daukagu. Mahaiko kideek ez dute bertan sartzeko ohiturarik, eta beraz, erabaki da mezu elektronikoko bat bidaltzea webgunearen bidez dokumenturen bat partekatzen denean.
Erronka nagusiak	- Indarkeria matxistaren inguruko testuingurua aldatuko duen gaurkotasuneko gaiak lantzea, berdintasuneko lege berria, esate baterako. - Bigarren mailako eragileekin harremana indartzea, eta zehatzago esanda, komunikabideekin anonimotasuna, erantzunaren berehalakotasuna eta beste gai batzuk lantzea. - Berritzegunearekin, Lanbiderekin, epailearekin eta indarkeriaren arloko txandako ofizioak abokatuekin harremana berreskuratzea. - Lurraldean indarkeriaren inguruan dauden beste koordinazio-eta arreta-protokolo batzuekin harremana ezartzea.

	- Mahai Teknikoarekin hausnartzea legeak indarkeriaren zuzeneko biktimatzat hartzen dituen seme-alabentzako arretak nolakoa izan behar duen. - Erreparazio-ekintzak praktikan nola gauzatzen diren sakontzea. - Inplikaturako agenteen artean harremana sendotzea. - Hausnarketa egitea protokoloaren esparruan sartzen ez diren indarkeria matxista batzuei edo esparru horretan sartu arren daturik erregistratu ez eta arretarik eskaintzen ez zaien indarkeriei buruzko datuak biltzeko moduari buruz. - Baliabide desberdinetan printzipioak finkatzen lanean jarraitzea. - Mugimendu feministarekin harremana indartu
--	--

Intereseko beste dokumentu batzuk:
Tokiko mahaien balioa.

Barne-dokumentua.

- KONFIANTZAZKO GUNEA. Gune honek konfiantza sortzen du, komunikazioa sendotzen du, hurbiltasuna eskaintzen du. Zailtasunak partekatzen dira, eta era berean, ideia berriak sortzeko aukera eskaintzen du. Hain zuzen ere, ideia horiek ezinbestekoak dira arreta hobetzeko.

- ERAGILEEN LANA. Tokiko mahaia izateak elkar ezagutu ahal izatea bermatzen du. Ez bakoitzaren aurpegia ezagutzen dugulako soilik, baita gainerakoek egiten duten lana zehatzago ezagutzen dugulako ere (zailtasunen berri izaten dugu, besteen balioa, arrailak).

- KASU ZEHATZAK. Larrialdi-unea gainditu denean (denbora pasatu ostean), kasu zehatzen gainean sakontzea ahalbidetzen du. Horri esker, beste ikuspegi batetik begiratuko dugu jarraitutako prozedura, eta lasaiago pentsatuko dugu nola lan egin dugun eta kasu zehatz horren inguruan nola koordinatu garen. Inplikaturako eragileak koordinatuta gaudela uste izan dezakegu, baina koordinazio hori puntuala da, larrialdiko egoera bati lotua, erantzun zehatzekoa. Baina ez du ahalbidetzen prozesamendua sendotzeko koordinazio sistematizatuagoa.

- KASUEN OSOTASUNA. Arreta eskaintako kasu zehatzak osotasunean ezagutzea ahalbidetzen du (360º-ko ikuspegia, triangulazioa); izan ere, eragile bakoitzak kasuaren gainean duen ezagutza partekatzen du eta horrek konposizio orokorra egitea ahalbidetzen du.

- KASUEN JARRAIPENA. Kasuen jarraipena sinpleagoa da. Banaka jarduten dugunean, ohikoa izaten da arreta puntuala eman ondoren kasuari buruzko informazio gehiago ez izatea. Baina formatu horrekin errazagoa da kasuaren jarraipena egitea, emakumeak egin dituen urratsak ikustea, bere egoerari buruzko informazioa izatea, etab. Komeni da, halaber, egiten dugun lanak, beharrezkoa izateaz gain, zentzua duela ikustea. Informazioa partekatzen dugunean errepikatzen diren indarkeria-kasuen testuingurua (berririki biktimizatzea) ulertzeko aukera gehiago ere badago.

- OSOKO ARRETA ETA IKUSPEGI OROKORRA. Osotasuna bermatzen du:

- Eguneroko lan independentea sistema oso baten barruko pieza gisa ulertzeko aukera ematen du saio honek. Egiten dugunak lotura estua du beste espazio batzuetan egiten dutenarekin, eta eragile guztiek batera lan egiten dugunean, gure eraginkortasuna bikoiztu egiten da.
- Bestalde, emakume batek behar duen arreta integrala hobeto ulertzen eta bideratzen dugulako. Indarkeria kasu batek toki desberdinetatik etorritako laguntza behar du, eta koordinatua eta koherentea izango dena. Osokoa.

- ARRETA PERTSONALIZATUA. Emakume bakoitzaren behar zehatzak bideratzea errazagoa da kasu osoa ezagutzen dugunean, informatuta gaudenean, etab. Emakumeak behar duenera egokitzen gara. Arreta pertsonalizatua eta egokitua.

- MAHAI TEKNIKOEN ETA TOKIKO MAHAIEIEN ALDEAK. Tokiko mahaietan, mahai teknikoan ez bezala, zuzenean esku hartzeko aukera dago. Batek arreta lantzeko aukera gehiago eskaintzen du; bestea, aldiz, koordinazioan oinarritzen da nagusiki. Mahai teknikoak eta tokikoak osagarriak dira. Tokikoak ikuspegi mikroa, zehatza eskaintzen du eta arreta egokiagoa eskaintzeko bidea da. Tokiko mahaiak ikuspegi orokorra eskaintzen du, eta hobekuntza koordinazioan.

- INDARKERIA MODU BERRIAK. Protokoloaren esparruan sartzen ez diren indarkeria motak azaltzeko aukera ematen du eta ahal den neurrian irtenbidea bilatzeko atea zabaltzen da.

- **BERDINTASUN TEKNIKARIAREN BALIOA.** Berdintasun-teknikaren presentzia balio hutsa da. Beste erakunde batzuek beren beharretara egokitzeko detektatzen dutena sar dezake bere plangintzan. Eragileentzat; izan ere, indarkeriarekin lotutako ikuspegia zabaltzen du; sarrera atzemateko eta detektatzeko bide berria delako. Gainera, indarkeriari ikuspegi zabalagotik begiratzen dio.

- **BALIABIDEEN BEHARRAK.** Profesionalek izan ditzaketen beharrei erantzuteko aukera egokiagoa eskaintzen du. Beharrak ikusaraztea eta, batez ere, erabakiak hartzeko guneetara eramatea, berdintasunerako teknikaren bidez.